

HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA

2022/2023 ikasturtea

MUGIMENDU AUTONOMOAN DRAMATIZAZIOA

LANTZEN HAUR HEZKUNTZAN

ERANSKINAK

Egilea: Iker Ramirez Morales

Zuzendariak: Nagore Martinez Merino eta Josune Rodríguez-Negro

Leioan, 2023ko ekainaren 6an

ERANSKINAK

1.eranskina. Ikasgelako txokoak

LAN TXOKOA



TXOKO ZIENTIFIKOA



ERAIKUNTZA TXOKOA



LASAI TXOKOA



ERRUTINAK EGITEKO GUNEA



2.eranskina. Elkarrizketak

- Zelan ikusten duzu Mugimendu Autonomoa eskolan?

Ikastetxe honetan martxan dago metodologia hau, baina eskola ordutegian arratsaldeetan soilik egiten dute, bazkal ostean, 15:15etatik 16:00ak arte. Kontuan hartu behar da HHko etapan adin bakoitzeko 2 gela daudela eta hauek txokoetan antolatuta dituztela, hauek ekosistema bezala aprobeztatuz bazkal osteko ordu-tarte horretan. Haur bakoitzak nahi duen hautua egiten du: 3 urteko gelako haurrek haien bi geletan egoteko aukera dute eta 4 eta 5 urtekoen kasuan, lau gelen artean aldatzeko aukera dute. Gela bakoitzak bere txokoak ditu, hau da, 5 urteko gela baten, esaterako, lasai-txokoa, lan-txokoa, eraikuntza txokoa eta txoko zientifikoa daude eta bestean, eraikuntza eta zientifikoa izan beharrean, arte txokoa eta txoko sinbolikoa dituzte.

4 urteko geletan antolaketa berdina jarraitzen dute, eta nahiz eta txokoak errepikatu, bertan dauden baliabide eta materialak aldatzen dituzte; zientifikoan esaterako, area, udazkeneko hosto eta fruituak edota dilistak gatzarekin egon daitezke eta sinbolikoan, mundu txikia, mozorroak edota denda bat egon daiteke.

Nabarmentzekoa da txoko batzuetan, zenbait jarduera gauzatzeko, 2 haur soilik egon daitezkeela, 2 amantal edo 2 aulki daudenean esaterako. Horrez gain, autonomia garatzeko aukera daukate, txoko batzuetan egon ostean, haiek bakarrik garbitu eta erratza pasatzen dute.

Ikasketa burua, HH5eko irakasleak eta HH4ko irakaslea

- Nolakoa da dramatizazioaren presentzia eskolan?

Gehienbat pertsonaiak imitatzen dituzte psikomotrizitate gelan daudenean, beraien kontura eta espontaneoki egiten dute, mozorroak oihalekin eginez, haien artean hitz eginez, etab. Txoko sinbolikoan ere asko lantzen dute, denon aurrean lotsatu egiten baitira, baina badaude irakasle-ikasleen artean sortutako hainbat egoera, batzuetan haurrek irakasle rola hartzen dute eta antzerki txiki bat sor dezakete. Antzerkia berez ez da lantzen, proiekturen batekin lotuta ez badago, eta garrantzitsua da, baina eskolan oso gutxi egiten da.

HH5eko irakasleak

- Lotura dago Dramatizazioa eta Mugimendu Autonomoaren artean?

Jolas sinbolikoko gunea da gehienbat lotuta dagoena Mugimendu Autonomoari, gure bizitzan aurki ditzakegun lekuak sor daitezkelako bertan: denda bat, ospitale bat, taberna bat, etab. Bertan, rolak esleitzen dituzte haien artean eta orri batean idazten dute bakoitzaren pertsonaia.

HH5eko irakasleak

3.eranskina. Behaketa-taula

| | |
|--------------------|--|
| OTSAILAK 1 | <ul style="list-style-type: none"> - Mutil batek bi aldizkari hartu eta txoria izango balitz bezala mugitu |
| OTSAILAK 2 | <ul style="list-style-type: none"> - Txoko zientifikoan lau hankatan eta guau-guau, txakurrak imitatuz (sinbolikoa) - Inauterietako txanorako zintak moztu ostean → flekillo - Jolastokian ama eta aitara jolastu (sinbolikoa) - Inauterietako txanoa izozkia izango balitz bezala erabili |
| OTSAILAK 3 | <ul style="list-style-type: none"> - Txoko zientifikoan, neska batek hau esan du: <ul style="list-style-type: none"> - Begira etxea dekoratu dut, gabonak dira. - Ni eta (mutil baten izena) hermanoak gara. Ni altxatu naiz baina bera lo dago. |
| OTSAILAK 6 | <ul style="list-style-type: none"> - 5 urteko beste gelara doaz asko → jolas sinbolikoko txokora (medikua/ospitalea) |
| OTSAILAK 7 | <ul style="list-style-type: none"> - Psikomotrizitate gelan: gaztelua eraiki, lotan nago (oihalekin estali), oilarraren kantua egin, etab. |
| OTSAILAK 8 | <ul style="list-style-type: none"> - Kartoizko tutu batekin, begira pistola bat - Eraikuntza txokoan → animalien eskola egin dutela, muntaiaren azalpena emanez, animali guztiak lotan daude (etzanda jarri dituelako) |
| OTSAILAK 9 | <ul style="list-style-type: none"> - Izenak banatzerakoan → hori (bandeja) izenen ohea izan ahal da - 4 urteko gelan inauterietako txanoekin: bi haurrek jantzi zituzten eta miel otxinez mozorrotuta zeudela antzeztu zuten "miel otxin gara! Harrapatuko zaituztegu!". Txanoak kendu eta "listo, orain ez gara miel otxin" |
| OTSAILAK 10 | <ul style="list-style-type: none"> - Txoko zientifikoan → imanak dituen jolas batekin neska batek "begira zer egin dudan" eta kanpoko mutil batek "gaztelu bat da" esan zuen hezitzaileak ia zer den galdetu ostean. |
| OTSAILAK 13 | <ul style="list-style-type: none"> - Txoko zientifikoan → mutil batek "Pikachu"-ren izaera hartu du eta buztana ukitzeko esan die berarekin zeuden lagunei. - Jolastokitik bueltan → bi neskek txakurraren onomatopeia (guau-guau) egin dute eta eskuak zurrupatzen aritu dira. |

| | |
|---------------------------|---|
| <p>OTSAILAK 14</p> | <ul style="list-style-type: none"> - Psikomotrizitate gelan: <ul style="list-style-type: none"> - Talde batek “the floor is lava” jolasa, blokeen gainetik pasatuz, pertsonaiak ziren eta bizitzak zituzten (lurra ukitzeagatik bizitzak galtzen zituzten). - Bi neska pertsonaia gaiztoen izaera hartu dute eta aurpegiak adierazten zuten haserrea, eta eskuetan besteak jotzeko zerbait izango balute bezala. - Mutil batek katuaren onomatopeia (miau-miau) egin du. - Uztaiarri erabilera aldatu → maskotak eramateko uhala izango baliz bezala. - Oihalak hartu dituzte, kapa moduan edo buruko zapi bezala janzteko. - Hamaiketako egiterakoan → ogia zatitu baino lehen hezitzaileak “begira gitarra bat” esan du eta haurrak ezetz erantzun dute, eta ezpata bat, i letra, edo adarbakarra zela esan dute. - Argixorekin jolasten → txotxongiloa izango balitz bezala (haurrek galderak egiteko aukera izan dute) - Jolastokian → jolas sinbolikoa (ni ama izango naiz, zu aita, zu...pertsonaiak esleitu) |
| <p>OTSAILAK 15</p> | <ul style="list-style-type: none"> - Txoko sinbolikoan → 2 mediku (haietako bat katu bihurtzen zen eta familia bateko anaia nagusia zen), gaixo 1 (hankan benda bat, baina osatu da). - Batzuk zaldiarena egin dute (4 hankatan jarritz) eta beste batzuk gainean jarri dira. |

4.eranskina. Esku-hartzearen kronograma

| ASTELEHENA | ASTEARTEA | ASTEAZKENA | OSTEGUNA | OSTIRALA |
|-------------------|------------------------------------|-------------------|-------------------|-------------------|
| | Jolas sinbolikoa | | Itzal txinatarrak | Itzal txinatarrak |
| Itzal txinatarrak | Ipuin motorra Itzal txinatarrak | Itzal txinatarrak | | |
| | Jolas sinbolikoa | | | |
| Txotxongiloak | Ipuin motorra Txotxongiloak | Txotxongiloak | Txotxongiloak | Txotxongiloak |

5.eranskina. "Tximeletak gara" ipuina

Kaixo lagunak! Ipuin honetan tximeletak bihurtuko gara, horretarako, hegoak prestatuko ditugu eta hegan hasiko gara (*indioen moduan jesarrita hankak gora eta behera mugitu*).

- Goazen basora! - esan dute tximeletak. Basoan koloretako lore ederrak ikusi ditugu eta haien inguruan biraka eta biraka hasi gara (*jesarrita, enborrarekin bueltak ematen ditugu*). Orain, beste aldera biraka eta biraka (*noranzkoa aldatuz*).

Eguzki goxoa atera da. - Kaixo tximeletak! - esaten digu eguzkiak (*besoak alztatuz, zirkulu erdiak irudikatzen ditugu*). - Kaixo eguzkia! - esango diogu guk hegoak mugituz (*indioen moduan jesarrita hankak gora eta behera mugitu*).

Baina bat-batean, lainoak etorri dira gu agurtzera, eta hainbeste hurbildu dira euria ari duela goitik behera (*besoak gora eta behera, eskuak eta atzamarrak mugituz*). - Lasai, gu ez bustitzeko, tapatu egingo gara eta horretarako gure gotorlekuan gordeko gara (*belaunen gainean jarri, burua behera koltxonetaren gainean eta eskuak gure enborraren alboetan*). - Oso ondo ari zarete tximeleta txikiak!

Begira, haizea dator eta haizeak lainoak eramango ditu. Horretarako, putz egingo dugu, bai? Hartu arnasa sudurretik eta bota ahotik, hartu sudurretik eta bota ahotik (*birritan errepikatuz*). Lainoak aldentzen ari dira.

Lainoak joan dira eta orain, ostadarra atera da. Sorbaldak aurrera eta atzera, aurrera eta atzera (*birritan errepikatuz*).

Ze ondo pasatu dugun gaur, eh tximeletak? Bai, ederki pasa dugu eta horregatik hegoak mugitzen ditugu. (*tximeletaren mugimendua: hankekin*) Horrela gure laguntxo berriei agur esango diegu:

- Agur eguzkia, eskerrik asko gure egunak berotzeagatik (*eguzkiaren mugimendua: besoekin*)
- Agur euria, eskerrik asko gure egunak freskatzeagatik (*euria mugimendua: eskuekin*)
- Agur haizea, zure boterearekin hodeiak eramateagatik (*haizearen mugimendua: ahoarekin*)
- Eta hurrengora arte ostadarra, eskerrik asko gure egunak koloreztatzeagatik! (*ostadarraren mugimendua: sorbaldarekin*)

6.eranskina. "Izarren bidai magikoa" ipuina

Bazen behin Izar izeneko ume jator bat, sukaldatzea izugarri gustatzen zitzaion. Baina helduen laguntza behar zuen beti. - Zuei sukaldatzea gustatzen zaizue?

Goiz batean, itzartu egin zenean, bere logelan sobre magiko bat agertu zen eta bertara hurbildu egin zen barruan zer zegoen ikusteko (*sobrea hartzen dugu*).

Sobrearen kanpoaldean hitz bat idatzita zegoen. "BIZKOTXOA". - Zer esan nahi du horrek?

Izarrek ezin zuen sobrea zabaldu, eta barruan bizkotxoaren errezeta sekretua zegoen!

- Lagunduko dugu Izar errezeta sekretua lortzen? Bere logelatik irten zen eta bidai magikoa hasi zuen Izarrek! (*zutik jarri eta lurretik altxatuko gara*)

Bizkotxoa egiteko osagaiak topatu behar zituen. Baina horretarako, proba batzuk egin behar zituen. Hasteko prest?

- 1.proba: mendi tontorrera igo eta salto egitea (*eskailerak igo eta koltxonetan salto egin*). 1.osagaia lortu: (*txartela hartu*) arrautzak!
- 2.proba: tximinoen moduan zuhaitzetaik eskegitzea (*eskegitzeko barrak*). 2.osagaia lortu: (*txartela hartu*) jogurta!
- 3.proba: zubitik pasatzea (*banku suediarrek*). 3.osagaia lortu: (*txartela hartu*) olio!
- 4.proba: errekako arrainei aurpegi barregarria jartzea (*ispiluaren aurrean*). 4.osagaia lortu: (*txartela hartu*) azukrea!
- 5.proba: eskalada egitea (*rokodromoa*). 5.osagaia lortu: (*txartela hartu*) irina!
- 6.proba: zuhaitzen enborrak gainetik eta azpitik pasatzea (*banku suediarrek*). 6.osagaia lortu: (*txartela hartu*) legamia!




Iluntzen hasi zen eta Izarrek 6 osagai lortu zituen.

- Guk 6 lortu ditugu? Oso ondo, ba sobre sekretua zabaltzeko, denon artean esan behar ditugu, bai? (*osagaiak izendatuko dira*). Guzti hauek nahastuko ditugu (*nahasketa mugimendua eskuekin*) eta...oso ondo! Sobre zabaldu dugu! Lortu dugu bizkotxoaren errezeta sekretua! Izar oso pozik egongo da gurekin! Hemendik aurrera bizkotxoa egiten jakingo dugu, ezta?


7.eranskina. Ipuin motorrak: materialak eta baliabideak

| TXIMELETAK GARA | |
|--|--|
| <ul style="list-style-type: none"> - Koltxonetak - Musika lasaia + gailu elektronikoa bat (ipuina kontatu bitartean entzuteko) | |
| IZARREN BIDAI MAGIKOA | |
| <ul style="list-style-type: none"> - Psikomotrizitate gelako materiala: <ul style="list-style-type: none"> - Koloretako bloke bigunak - Koltxonetak - Banku suediarrek - Ispilua - Eskegitzeko barrak - Egurrezko eskailerak - Rokodromoa - Bizkotxoaren errezeta: → - Bizkotxoaren osagaien txartelak: OSAGIAK - Zenbakien txartelak: ZENBAKIAK - Sobre bat "BIZKOTXOA" hitzarekin | |






8.eranskina. Itzal txinatarak



9.eranskina. Txotxongiloak



10.eranskina. Jolas sinbolikorako materiala

| MATERIALA | KOPURUA | ARGAZKIA |
|-------------------------|---------|--|
| Koloretako blokeak | 30 |  |
| Oihalak | 10-15 |  |
| Poltsuak | 2 |  |
| Txanoak | 7 |  |
| Eguzkitako betaurrekoak | 3 |  |

| | | |
|------------------------|------------|--|
| <p>Eskumuturrekoak</p> | <p>2</p> |  |
| <p>Lepokoak</p> | <p>4-5</p> |  |
| <p>Pelukak</p> | <p>2</p> |  |
| <p>Tutuak</p> | <p>2</p> |  |
| <p>Mugikorrak</p> | <p>2</p> |  |
| <p>Diruzorroa</p> | <p>1</p> |  |

11.eranskina. Esku-hartzearen ebaluazioa

JOLAS SINBOLIKOA

| | |
|------------------------|---|
| <p>1. SAIOA</p> | <ul style="list-style-type: none"> - Etxe bat eraiki da psikomotrizitate gelako bazter batean, izkina aprobetxatuz eta tamaina askotariko blokeak eta oihalak jarriz. Egiten zen bitartean bi haur hurbildu dira interesatuta eta etxe bat zen edo ez jakin nahi izan dute. Baiezkoa eman zaie eta ostean, laguntzeko aukera eman zaie. Haiek lagundu nahi izan dute, eta bat-batean haur guztiak (2-3 izan ezik) etxera hurbildu dira bertan jolasteko asmoarekin. Guztientzako tokia ez zegoenez, batzuei bertatik irtetzeko esan zaie. - Horregatik beste etxetxo bat sortu behar izan da, hau bestea baino txikiagoa izanik. Bertan ere blokeak eta oihalak erabili dira eta horrela haurrak bi etxetxoen artean banatu dira. - Gehienak etxetxoetan jolasten ibili dira; jolas sinbolikoan gehienetan aritzen diren haurrez gain, horretan aritzen ez direnak ere bertan egon dira. Familiaren pertsonaiak esleitu dituzte, ekintza ezberdinak egin (ama, seme-alabak, txakurrak...), etxearen atal ezberdinak izendatu (atea, ohea, teilatua...), etab. - Egindako lehen etxetxoa haur batentzat “base sekretu” bat zen eta inork ezin zuen bertako ezer ukitu ezta mugitu. Hala ere, baten baino gehiagotan beste haurrak bere sorkuntza apurtzen ari zirela esan du. - Denbora aurrera joan ahala hezitzailea haiekin jolastera hurbildu da, jolasa behatzeko eta informazio gehiago jasotzeko asmoarekin. Batzuk irten eta sartu jolasa egin dute, beste batzuk etxeak egin eta desegin dituzte, eta baten batek eraikuntza apurtzerakoan laguntza eskatu du berriz eraikitzeko. Beste egitura bat sortu da, kotxe itxurarekin, baina honetara ia ez dira hurbildu, etxetxoetan babesa eta berotasuna sentitzen ari zirelako, batzeko ordua heltzear zegoelako, eta jada nekatuta egon direlako. - Saio osoa bertan jolasten aritu dira, gelako bost edo sei haur izan ezik, espalderetan eta koltxoneta handietan ibili direlako. Beraz, arrakasta handia izan du esku-hartzearen atal honek. |
| <p>2. SAIOA</p> | <ul style="list-style-type: none"> - Materialak psikomotrizitate gelan dauden bi kutxa handietan sartu dira eta bertara heldu orduko ez zaie ezer azaldu. |

| | |
|--|---|
| | <ul style="list-style-type: none"> - Blokez egindako horma bota dutenean, batzuk etxe bat eraikitzea zihoazela, material berriaz ohartu dira eta horrekin jolas daitekeen galdetu dute. Baiezkoa jaso ostean, mozorratzen hasi dira. - Gela osotik jolas daitekela esan zaie, bazter batean zeudelako. - Hainbat mozorro eta rol ezberdin izan dituzte, besteak beste: ama, izeko, ume txikiak, santa claus, banpiroa, dendaria eta ninja. - Mozorroek etxeak eta bestelako egiturak eraikitzea eragin dute. - Deigarriagoa egin zaiena → poltsoak eta mugikorrak izan dira. Horiez gain, apaingarri eta osagarriak erabili dituzte gehienbat (txanoak, lepokoak, eskumuturrekoak). - 15 haurretik 6k ez dute inolako materialik erabili, koltxonetetan jolasten ibili direlako, baina bestelako guztiak saioan zehar materialen bat behintzat erabili dute. - Oso arrakastatsua izan da, beste pertsonaia batzuen rolean sartu direlako eta mozorratzen oso pozik ibili direlako. |
|--|---|

IPUIN MOTORRA

| | |
|-------------------------|---|
| <p>1. IPUINA</p> | <ul style="list-style-type: none"> - Giroa prestatu orduko ia zertarako zen galdetzen hasi dira. Guztiak prest zeudenean ipuinaren kontaketaekin hasi da saioa. - Denek parte hartu dute eta denek protagonismoa izan dute, mugimendu guztiak gogotsu egin dituzte. Asko gozatu dute istorioarekin eta giro atsegina izatea lortu dute. - Gelako tutoreak oniritzia eman du: oso egokia izan dela, haurrak lasaitzea lortu dela eta istorioa eta ariketa oso politak izan direla esanez. |
| <p>2. IPUINA</p> | <ul style="list-style-type: none"> - Gelara sartzera material eta espazioen antolaketatik harritu dira eta berehala, esandakoa bete dute, gogotsu sartu baitira gelara. - Zapatilak kendu eta ipuinaren kontaketa hasi da. - Arreta ipuin kontalariarengan islatu dute une oro. |

| | |
|--|---|
| | <ul style="list-style-type: none"> - Frogekin hasi aurretik, zenbakiak ikusteko esan zaie eta ordenean joango direla ere gogorarazi zaie, bakoitza bere kabuz jokatzen hasi delako (banaka zenbakietara hurbildu dira, kendu nahi izan dituzte...). - Frogaz-froga aurrera joan ahala, hurrengo egin nahi zuten osagaiak eskuratzen joateko eta hurrengora azkar joaten ziren. - Oso gustora eta gogoekin bete dituzte froga guztiak. Haur gehienek guztiak egin dituzte eta bestela, haur batzuentzat beste irtenbide batzuk jarri dira, txiribuelta bat egitea esaterako. - 6 froga ziren eta 7. bat eskatzen zuten. - Bukaeran oso adi egon dira denak eta energia botatzeko gogoekin zeuden, beraz, ipuinaren hasiera eta amaiera egiteko sortu den egitura hori botatzean amaitu da ipuinaren kontaketa. - Irakaslearen oniritzia jaso da ere; gogoekin prestatu dela eta istorioa polita eta egokia izan dela esanez. |
|--|---|

ITZAL TXINATARRAK

| | |
|------------------------|---|
| <p>1. SAIOA</p> | <ul style="list-style-type: none"> - Abiapuntu moduan “Itzalak zer diren” galdetu da eta haurren erantzunak jaso ondoren, gure eskuek beste erabilera bat dutela azaldu zaie, kontuan hartuta lantzen ari diren gai giza gorputza dela. - Horren ostean bideoa jarri da, haiek itzal txinatarrak ikusteko. - Ondoren, bost animalien itzalak aurkeztu dira eta haien eskuekin frogak egiten hasi dira. Txartelak Mugimendu Autonomoan erabiliko dituztela azaldu da. - Mugimendu Autonomoan proiektorea piztu eta itzalen txartelak bertan jarri dira, haurrak erakartzeko moduan, baina bi haur besterik ez dira hurbildu itzalak egitera. |
| <p>2. SAIOA</p> | <ul style="list-style-type: none"> - Bost urteko gelako beste tutoreak honen berri izan du eta bere gelan ere azaldu daitekela proposatu du. - Azalpena eman da eta gela honetako haur gehienek erantzuna askoz negatiboa izan da. Batzuentzat ez da izan batere erakargarria. |

| | |
|-----------------|---|
| | <ul style="list-style-type: none"> - Mugimendu Autonomoan, beste gelako haurrak ez dira gelara joan itzalekin jolastera eta gelakoen artean batek bakarrik erabili ditu. |
| 3. SAIOA | <ul style="list-style-type: none"> - Lehenengo bi egunetan falta izan den mutil bat gerturatu da, txartelak interesa piztu diotelako. - Hezitzailea berarengana hurbildu da, galderen bidez azalpen labur bat emateko eta frogatzera gonbidatu du. - Proiektorearen aurrean egon da, bi animalia egin ditu eta ostean beste gauza bat egitera joan da. |
| 4. SAIOA | <ul style="list-style-type: none"> - Hasieran ez da haurrik gerturatu. - Aspertuta diruditen bi haur gonbidatu dira itzalak egitera. Hala ere, denbora gutxi egon dira itzalak egiten. |
| 5. SAIOA | <ul style="list-style-type: none"> - Azken saio honetan ez da haur bat ere ez hurbildu itzalak egitera. - Gelako mikroekosistemetara ez baita haur askorik hurbildu, beste ekintza batzuk gauzatzen ibili direlako eta gelako espazioa hutsik egon da. |

TXOTXONGILOAK

| | |
|-----------------|---|
| 1. SAIOA | <ul style="list-style-type: none"> - Material berria denez askok jolastu nahi izan dute, deigarria egin zaie, baina bikoteka jartzeko esan zaie, ume asko ez pilatzeko eta txotxongiloak ez direnez errepikatzen, elkarbanatzea zailagoa izan daitekelako. - Koilaraz egindako txotxongiloak, bestek baino erabilera gutxiago izan dute, hala ere, batzuk pertsonak direla esan dute. - Istorio txikiak sortu dituzte eta noizean behin onomatopeiak, soinuak eta gaztelerazko hitzak esan dituzte, batek bakarrik esan baitu euskarazko esaldi bat. - Haur batek laguntza behar izan du eta hezitzaileak txotxongilo bat hartu du bere istorioa garatzen laguntzeko asmoz. |
| 2. SAIOA | <ul style="list-style-type: none"> - Hasieran ez dira haur asko hurbildu, baina denbora aurrera joan ahala |

| | |
|-----------------|--|
| | <p>batzuk gerturatu dira.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Atzo etorri ez zen ume batentzat deigarria izan da eta ea zer den galdetu du, interesa erakutsiz. - Bi haurrek antzerki txiki bat egin dute eta beste hiru gehitu zaizkie. Guztien artean animalia eta pertsonen arteko borroka bat egin dute, gutxi hitz egiten, soilik onomatopeiak erabiliz. Kortina teloi moduan erabili dute, itxi eta zabaltzen ibili direlako. - Beste ume-talde batek itsas animaliei buruzko antzerki txiki bat egin du; marrazoak beste animaliak jaten ditu eta amona itsasoan agertzen denean haginka egin eta ilea mozten dio. Marrazoaren rola, besteak beldurtu eta jatea izan da. - Haur batek koilaraz egindako txotxongiloak erabiliz kanta alaiak abestu ditu. |
| 3. SAIOA | <ul style="list-style-type: none"> - Gelako haur guztiak LH5-eko ikasleengana joan dira gelako proiektuari buruzko aurkezpen txiki bat egitera, beraz, ez da egon Mugimendu Autonomorik eta ez dira txotxongiloak erabili. |
| 4. SAIOA | <ul style="list-style-type: none"> - Ez dira haur asko gerturatu, bi besterik ez, eta oso denbora gutxi ibili dira bertan; eskuak txotxongiloz bete dituzte eta hezitzaileengana hurbildu dira erakustera. - Batzerako orduan haur batzuk jolastu nahi izan dute. - Txotxongilo bat desagertu egin da eta denon artean aurkitzen saiatu dira. Honen ondorioz, gelako materiala zaindu egin behar dela eta gelan bertan jolasteko dela gogorarazi da. |
| 5. SAIOA | <ul style="list-style-type: none"> - 4 eta 5 urteko geletako tutoreen artean Mugimendu Autonomoa ez egitea erabaki da, beraz, azken egun honetan ez dira txotxongiloak erabili. - Aurreko eguneko desagerpenari buruz hitz egin da eta txotxongiloa ez da agertu. |